

LAGUN ARO



Zurekin hobetzen dugu

Moldatu zure poliza gure aukerako estaldurekin:

1. Kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea.



Kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea estaldurak aukerako estaldura gisa gehitu daitezke Hirugarrena Beirak eta Hirugarrena Optimoa modalitateetan. Dagoeneko Norberaren kalteak (Arrisku Orokoa eta Arrisku Orokoa Plus) modalitatetakoetan gehitu dira, eta ez da dagokion frankizia aplikatuko ezbeharra gertatuz gero.

Aplikatu zaio:

Hirugarrenena - Oinarrizkoa	Hirugarrenena - Beirak	Hirugarrenena - Optimoa	ARRISKU OROKOA	ARRISKU OROKOA PLUS

2. Ordezko ibilgailua



Ordezko ibilgailuaren estaldura hobetu dugu, eta, **istripua edo matxura gertatuz gero**, alokairuko ibilgailu bat izateko aukera izango duzu.

Aplikatu zaio:

Hirugarrenena - Oinarrizkoa	Hirugarrenena - Beirak	Hirugarrenena - Optimoa	ARRISKU OROKOA	ARRISKU OROKOA PLUS

3. Gidabaimena kentzea



Gidabaimena aldi baterako errebokatuz edo kenduz gero, **hileko kuota** bat jasoko duzu baimen gabe zauden denboran zehar, hau da, 12 hilabetez gehienez ere edota 3 hilabetez, hurrenez hurren. Horrez gain, **prestakuntza-ikastaroetan matrikulatzeko gastuak** ordainduko zaizkizu puntu guztiak galduz gero (500 euroko mugarekin).

Aplikatu zaio:

Hirugarrenena - Oinarrizkoa	Hirugarrenena - Beirak	Hirugarrenena - Optimoa	ARRISKU OROKOA	ARRISKU OROKOA PLUS

4. Pneumatikoak



Zure ibilgailuaren gurpilak **zulatzearen edo lehertzearen estaldura** jartzen dizugu eskura. Estaldura berritzaile horrekin pneumatikoaren matxura konponduko da, baina, konpontzerik ez badago, kalteetako pneumatikoaren kalte-ordaina emango da higadura kontuan hartuz.

Aplikatu zaio:

Hirugarrenena - Oinarrizkoa	Hirugarrenena - Beirak	Hirugarrenena - Optimoa	ARRISKU OROKOA	ARRISKU OROKOA PLUS

5. Asistentzia Plus



- **Bidaia-aseguru bat** atzerriko mediku-gastuak itzultzeko 30.000 euroko mugarekin.
- **Atoian eramateko estaldura zabalduarekin** ibilgailua hautatu duzun tailerrera eramateko aukera eskaintzen dizu, ezbeharra izandako lekua, matxura eta haren garrantzia edozein direla ere.
- Eta **eguneroko bizitarako laguntza**: zu edo zure familiako norbait **mugitu ezinik** eta/edo ospitaleratua egonez gero, eguneroko bizitzan lagunduko dizugu: etxean emateko zerbitzuak eta laguntza, seme-alabei laguntzea, eskola-laguntza eta abar barne

Aplikatu zaio:

Hirugarrenena - Oinarrizkoa	Hirugarrenena - Beirak	Hirugarrenena - Optimoa	ARRISKU OROKOA	ARRISKU OROKOA PLUS

6. Gidari Babestua



50.000 euroko kalte-ordaina emango dizugu, + 10.000 euro gehiago mendeko seme-alaba bakoitzarengatik, gidariak erantzukizuna daukan zirkulazio-istripuagatiko **heriotzaren edo baliaezintasun absolutuaren** kasuan. Estalduaren muga 100.000 eurokoa da. Gainera, **gidariaren istripuetarako kapitalarekin** estaliko zaitugu, baita beste baten ibilgailua gidatzen baduzu ere.

Aplikatu zaio:

Hirugarrenena - Oinarrizkoa	Hirugarrenena - Beirak	Hirugarrenena - Optimoa	ARRISKU OROKOA	ARRISKU OROKOA PLUS

7. Pack Pro



Etxez etxeko peritazioa egingo dizugu: ibilgailuaren peritazioa etxetik hurbil dagoen leku batean, lantokitik hurbil edota Espainiako beste edozein lekutan egin ahal izango da, bezeroak hala eskatuta. **Garraiatutako elementuen kalteak estaltzen ditugu**: Estalita geratzen dira zirkulazio-istripu baten ondorioz kalteak jasan dituzten eta une horretan ibilgailuak garraiatzen dituen aseguruaren jabetzako ondasunak, baldin eta laneko erreminta edo tresna badira, 1.000 euro bitarteko mugarekin.

Aplikatu zaio:

Hirugarrenena - Oinarrizkoa	Hirugarrenena - Beirak	Hirugarrenena - Optimoa	ARRISKU OROKOA	ARRISKU OROKOA PLUS